



T-6	1. Zitoeskeletoa beharrezkoa da:	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Organuluen kokapena eragiteko b- Zelularen polarizazioa eragiteko c- Fagozitosirako d- Guztiak ondo daude 				
T-6	2. Mikrotubuluaren zeregin garrantzitsu bat honako hau izaten da:	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Mintz plasmatikoa sendoago bihurtzea b- Estaldura nuklearrari gogortasuna ematea c- Migratzen ari den zelularen aurrealdean lamelipodia eraikitzea d- Golgi aparatuen zisternak nukleotik gertu mantentzea 				
T-6	3. Aktinazko zitoeskeletoari dagokionez...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Piru finenak dira b- Sorta paraleloetan antolatzen dira mikrobilosketan c- Egitura uzorkorrak sortzeko ezinbestekoak dira d- Guztiak ondo daude 				
T-6	4. α eta β tubulina mikrotubuluaren azpiunitateen osagaiak dira; eta γ tubulinaren funtzioa, zein da?	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Ezinbestekoa da zentrosoma bikoizteko b- Ezinbestekoa da mikrotubuluak polimerizatzeko c- Ezinbestekoa da mikrotubuluak egonkortzeko d- Zentrioloen osagai nagusia da 				
T-6	5. Zentrioloak:	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Bikoizten dira interfasean b- Zentrosoman soilik aurkitzen dira c- Despolimerizatzen dira zelula mitosian sartzen denean d- Guztiak GEZURREZKOAK dira 				
T-6	6. Aukeratu GEZURREZKOA den adierazpena mikrotubulu zitoplasmatikoei buruz:	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Plus muturraren azken monomeroan GTParen hidrolisia gertatuz gero pirua desantolatzen da b- Plus muturra babestuta dago mintz plasmatikoa ainguratzen bada c- MAP proteinak erabiltzen dira batez ere minus eta plus muturrak babesteko d- Minus muturra babestuta dago zentrosoman ainguratuta dagoelako 				



T-6	7. Estres zuntzak...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Tarteko piruz osatuta daude b- Aktinazko piru antiparaleloz osatuta daude c- Miosinazko piruz osatuta daude d- Uzkurketa muskularrean inplikatura daude 				
T-6	8. Keratinazko piruak/ek...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Soka antzeko egiturak dira b- Errepide moduan jokatzen dute besikulen garraiorako c- Oso egitura zurrinak dira d- Nerbio zeluletan oso ugariak dira, bereziki axoi eta dendritetan 				
T-6	9. Tarteko piruen polimerizazioan erabiltzen diren unitateak tetrameroak dira. Hauek...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Egitura polarizatuak dira b- Bi dimero antiparaleloz osatuta daude c- Lau proteina globularrez osatuta daude d- Lau proteina ezberdinez osatuta daude 				
T-6	10. Animalia-zelularen migrazioan eraikitzen den egitura zitoeskeletiko iragankorra hau da:	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Flageloa b- Zilioa c- Lamelipodia d- Axonema 				
T-6	11. Adierazi zein den GEZURREZKOA proteina motorrei buruz:	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Kinesina aktinazko piruan zehar mugitzen da b- Dineina mikrotubuluaren minus muturrerantz mugitzen da, nukleorantz c- Dineinak zilioaren mugimendua eragiten du d- Miosina ezinbestekoa da uzkurketarako: sarkomeroaren osagai nagusia da 				
T-6	12. Gorputz basalak...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Animalia-zelula guztietan agertzen dira b- Zelularen periferian kokatzen dira c- Xafla basalaren osagaiak dira d- Oso ugariak dira mikrobiloska ugari daudenean 				